

7. FUNTSEZKO ALIANTZAK / ELKARTEAK

Gure aliantza GHD (Good Hair Day) markarekin oso estrategikoa eta onuragarria da bi aldeentzat. Aliantza honen oinarrian dago amankomunean dugun interes bat: biok ilerako produktuak saltzen ditugu eta merkatu honetan posizionamendua hobetu nahi dugu.

Guretzat, aliantza honek aukera paregabea eskaintzen digu GHD markaren ospea eta nazioarteko aitortza aprobetxatzeko. Horrekin batera, gure bezeroekiko fidelizazioa ere handitu dezakegu, kalitate handiko eta markatutako produktuak eskainiz. Horrek gure marka sendotu eta lehiakortasunari aurre egiteko ahalmena ematen digu.

Bestalde, GHDrentzat aliantza hau ere irabazlea da. Gure enpresaren bidez merkatuan eskaintzen ez den produktu berri bat aurkezteko aukera dute. Honek beraien marka dibertsifikatu eta merkatu berrietan sartzeko ateak ireki ahal dizkie. Gainera, aliantza honek euren produktuen irismena handitzen lagunduko die, gure kanalak eta sareak erabiliz.

Laburbilduz, elkarlan honek bi aldeei abantaila argiak ematen dizkie, eta gure indarrak batuz, merkatuan eragin handiagoa izatea ahalbidetuko dugu. Aliantza honen bidez, biok hazteko eta gure bezeroen beharrak modu eraginkorragoan asetzeko aukera dugu